

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

88/2020 Foru Agindua, apirilaren 14koa, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuarena, Sobrongo (Lantarón) 1. poligonoko 938 lurzatian komunikazio dorrea ordeztzeko proiektuaren ingurumen inpaktuaren txostena ematen duena

“Sobrongo (Lantarón) udalerrria) 1. poligonoko 938 lurzatian komunikazio dorrea ordeztzeko proiektuaren” izapidetzea ingurumen inpaktuaren ebaluazio erraztuaren prozeduraren mende dago, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren I. eranskineko B) epigrafeko 18. apartatuan jasotako kasuen artean baitago, baita Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen kasuetan ere, zehazki 7. artikulua 2. epigrafeko B) apartatuan jasotakoetan. Prozedura Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legeak arautzen du (45., 46., 47. eta 48. artikulua).

Prozedura horren esparruan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuan Lantarón Udalaren idazkia sartu zen erreferentziako proiektuaren ingurumen eraginaren ebaluazio erraztuko prozedura izapidetzen hasteko. Idazkiarekin batera, ingurumen agiria ere erantsi zen.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak hasiera eman zion eragindako administrazio publikoak eta interesdunak kontsultatzeko faseari, 21/2013 Legearen 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak eskatuta, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak 2020ko martxoaren 24an emandako ingurumen inpaktuaren txostenean ezarritako balorazioa, zehaztapenak eta baldintzak jasotzen ditu foru agindu honek. Foru agindu hau egitea eta ALHAOn argitaratzea bat dator 21/2013 Legearen 47. artikuluko hirugarren epigrafean jasotako xedapenekin.

1. Proiektuaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa

1.1. Proiektuaren ezaugarrien laburpena.

Proiektua Sobrongo telekomunikazio zentroaren zerbitzuak ziurtatzera bideratuta dago, hormigoizko zutoinezko egungo dorrea (14 m) ordeztzeko altuera handiagoko (25 m) dorre indartu, metalezko eta saretauzko autosostatu batekin. Dorre berriak 200 km/h arteko haizeak jasateko gaitasuna ziurtatuko du (gaur egun nahitaezko betekizuna da), prestazio handiagoak izango ditu eta LTD, telefonia, telebista eta parabolikoen antenatarako euskarri izango da.

Aurreikusita dago dorre berria egungo esparru hesituaren barruan jartzea, zeina metalezko moduluez osatuta baitago oinarri zimendatu baten gainean.

Lehendik dauden bideak erabiliko dira alboko obrako makineria sartzeko, eta horrek dorre berrira sartzeko eta hura egitea errazten du.

Dorre berria jarri nahi den lursaila ez da urbanizagarria, eta “La Torca” onura publikoko mendiari dagokio, Valderejo-Sobron-Arzena mendilerroa (ES2110024) KBE/HBBEaren Natura 2000 Sareko eremuaren barruan.

Birmoldaketa txikia izango denez, aurreikusten da instalazio proiekturako obrek 3 lanegun baino gutxiagoko iraupena izango dutela, meteorologia baldintza normaletan.

Lan hauek egingo dira:

- Dorre berria kokatuko den lursaila egokitzea.
- Perimetroko hesia aldi baterako kentzea (eragindako eremua bakarrik).

- Dorrearen zimenduak hondeatzea.
- Dorrearen oinarria hormigoizatzea.
- Zola hormigoizatzea.
- Egitura muntatzea eta materialak jasotzea, kabestratedun kamioi besoaren bidez.
- Lehendik kendutako perimetro hesia birkokatzea.
- Ekipoak migratzea egungo dorretik berrira.
- Egungo dorrea eraistea, dorrea moztuta, zimendua zola gisa utzita.
- Sortutako hondakinak garraiatzea eta kudeatzea.

Ingurumen dokumentuan jasotzen denez, "egungo dorrearen eraispena eta dorre berriaren instalazioa SOBROn telekomunikazio zentroaren eremuaren barruan egingo dira, lehendik dagoen instalazioaren esparruaren kanpoko lurzorua okupatu beharrik gabe".

1.2. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa.


Proiektuaren eremu geografikoa Sobrongo telekomunikazio zentroa da, Lantaron udalerriko izen bereko gunearen inguruan kokatua. A-2122 errepideko 48,000 PKtik abiatzen den zabor legarreko pista batetik sartzen da eta gaur egun aurri egoeran dagoen Hotel Blanco zenaren ondotik igarotzen da. 400 metro egin ondoren, eskuinera desbideratu behar da hormigoizko beste pista batetik igotzeko (Sobrongo Ferrata bidea – 1. tarte). Pista hori aipatutako zentroan amaitzen da, irudi honetan ikus daitekeen bezala:




Zentrorako sarbidea



Zentroaren irudia



Zentroaren eskema, gaur egun



Egin nahi den aldaketaren eskema

2. Kontsulta fasearen laburpena

Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarten zerrenda jartzen da, eta haietatik zeinek erantzun duen:

URA – Uraren Agentzia	√
Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza	
GAIA elkarte	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartasuna	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	√
Arabako Kontzejuen Elkarte	
SEO Birdlife	
Lantarongo Udala	√
Sobrongo Administrazio Batzarra	
Añanako Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritzak	√

Jasotako erantzunetan ikusitakoa laburbilduko dugu hemen (ingurumen inpaktuaren txostenari jasotako agirien kopia osoak erantsi zaizkio, www.araba.eus-en ere badaudenak):

- Dokumentazioa aztertu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi du proiektuaren eremuan ez dagoela kultura ondarearen gaineko eraginik.

- URA – Uraren Euskal Agentziak lehenengo txosten bat eman zuen eta bertan zehazten zen eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri zaiola, egokituz joz gero gaiari buruzko txostena egin zezan, Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legean ezarritakoarekin bat etorritz.

URAK bigarren txosten bat egin du, eta bertan positiboki baloratzen ditu lurpeko urak ez kutsatzeko ingurumen dokumentuan aurreikusitako prebentzio neurriak. Besteak beste, aipatzen du material xurgatzaile irisgarria eduki beharra dagoela (sepiolita edo antzekoa) ustekabeko isuriren bat gertatuz gero erabiltzeko, eta debekatuta dagoela obra eremuan erregaia kargatzea eta deskargatzea, olio aldatzea, tailerreko eragiketak, hormigoi makinak garbitzea eta abar egitea.

- Arabako Foru Aldundiko Museoen eta Arkeologiaren Zerbitzuak honako hau jasotzen du bere txostenean: “ez dago jasota aztarna edo egitura arkeologikorik dagoenik erreferentziako lursailean. Betiere, erreferentziako lursailean obretan zehar egin daitekeen edozein aurkikuntza arkeologiko berehala jakinarazi beharko da”

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak oharpen hauek egin ditu:

- a. Ez dago Arabako Lurralde Historikoko Landa Bideen Erregistroan inskribatutako biderik, proiektua gauzatu den lurzatiari zerbitzua ematen dionik.

- b. Proiektua gauzatu den lurzatiaren SIGPAC erreferentzia 1-35-900-95057 da.

- c. Proiektua gauzatu den lurzatiak Nekazaritza eta Basozaintzako LAParen arabera katalogatuta dago Mendia kategorian, “Basogintza” azpikategorian.

- d. Proiektua gauzatzeko gaur egun okupatuta dagoen lurzoruari baino ez diola eragingo kontuan hartuta, aldeko txostena ematen da “Nekazaritza sektorearen gaineko eragina” protokoloaren ondorioetarako, aplikagarri izan daitekeen araudi sektorialetik eratorritako xedapenak bete behar badira ere.

- IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak azaldu duenez, “erakunde honek ez dauka aipatutako kokalekuan lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik egin den berririk; horrenbestez, ez dago jasota lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan”. Era berean, hau dio: “kutsadura zantzurik agertuz gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaio, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko 4/2015 Legearen 22. artikuluan ezarritakoa betez”

- Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak dio proiektuak ez diela eragiten historia eta kultura balioa dela-eta babestuta dauden elementu edo higieziinei. Beraz, zerbitzu horren arabera, ez dago eragozpenik proiektua izapidetzeko.

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak txosten bat egin du, non uste baitu ingurumen dokumentuan garatutako analisian, oro har, zuzena dela. Hala ere, adierazten du sustatzaileak aipatzen dituen prebentzio neurriak ez direla behar bezain zehatz adierazten; horregatik, azpimarratzen du proiektuan aurrekontuan sartu beharko liratekeen neurri gehigarriak sartzeko beharra dagoela. Neurri horiek hauei buruzkoak dira: ingurumena zaintzea, aurretiko balizamendua, lanak gauzatu ez direneko aldi kritikoak eta lanak egin ondorengo jarraipena.

- Lantarongo Udalak bi txosten egin ditu, bertako Ingurumen eta Hirigintzako Udal Zerbitzu Teknikoen bidez. Hauexek dira laburbilduta ingurumenari dagozkion oharpenak:

- Egungo sarbide pista ez zabaltzeko beharra adieraziko da, eta tarteren bat profilatuta behar bada, inguruko artadiko landaredia babestu beharko da.

- Makineria parkea eta lehengai likidoak eta hondakin arriskutsuak biltegitzako izango den eremua planoan kokatuko dira. Hori guztia ingurumenean ahalik eta eragin txikiena egiteko irizpideetan oinarrituta.

Lurralde eta hirigintza plangintzari dagokionez, udal arkitektoak ondorioztatu du jarduketaren kokapena indarrean dagoen araudiaren arabera dela.

3. Proiektuak Natura 2000 Sarean izan ditzakeen ondorioen ingurumen balorazioa

Komunikazio dorrea ordeztzeko proiektuaren eraginpeko elementu eta ingurumen eremu nagusia Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) eta Valderejo-Sobron-Arzena mendilerroa (ES2110024) Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua (HBBE) da, Eusko Jaurlaritzaren mar txoaren 15eko 47/2016 Dekretuak adieraziak. “Natura 2000” Europako Sare Ekologikoko naturagune babestua da.

Aipatutako gunea kudeatzeko neurrien artean -Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 6ko 345/2017 Erabakiaren bidez onartuak-, 6.4 helburu operatiboa nabarmentzen da: "Naturagune Babestuen eremuko harrapari harkaiztarrak hazten diren lekuen inguruan lasaitasuna bermatzea eta hegazti horien produktibitatea handitzea lortzea". Helburu hori bat dator "Euskal Autonomia Erkidegoan Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak kudeatzeko baterako planean" ezartzen denarekin. Plan hori maiatzaren 22ko 229/2015 Foru Aginduaren bidez onartu zen eta horren bidez Naturagune Babestuen Eremua Interes Bereziko Eremu gisa eta ugatz (*Gypaetus barbatus*), sai zuri (*Neophron percnopterus*) eta sai arrearen (*Gyps fulvus*) Elikadura Babesteko Eremu gisa kalifikatuta dago.

Bereziki, sai zuria eta sai arrea ugaltzeko eta hazteko aldi kritikoak hartu behar dira kontuan; izan ere, inguruan habiak egiteko guneak eta hazkuntza eta elikadura eremuak daude. Kudeaketa Planaren 9. artikuluan bi espezie hauentzako aldi kritikoak ezartzen dira:

ESPEZIEA	ALDI KRITIKOA
Sai zuria (<i>Neophron percnopterus</i>)	martxoak 1 - irailak 1
Sai arrea (<i>Gyps fulvus</i>)	urtarrilak 1 -abuztuak 15

Ildo horretan, ingurumen agiriak hau adierazten du telekomunikazio zentroak faunaren gainean duen eraginari buruzko atalean: "kontuan hartuko dira kaltetuak izan daitezkeen hegaztientzako aldi kritikoak". Beraz, aipatutako dokumentuarekin bat etorritik, uste da egin beharreko jarduketek garrantzi txikiak, kontuan hartuta gaur egun badagoela dorre bat kokaleku berean, ezarri beharreko prebentzio neurriekin batera, ez duela ondorio kaltegarrikerik eragingo faunarengan, betiere eremu horretan ugalketa presentzia duten aipatutako bi espezieen aldi kritikoak errespetatzen badira.

4. Ingurumen eragin nagusiak

Proiektuaren ingurumen agirian, zehazki "Ingurumen inpaktuak identifikatzea" izeneko 8. atalean, proiektuaren ingurumen efektuak behar bezala aztertzen dira. Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren ustetan, proiektuaren ingurumen efektuen ebaluazioa modu egokian eta proportzionatua egin da. Ondoren, ingurumen agiritik bertatik ateratako zenbait ingurumen eragin nabarmentzen dira:

Landaredian eraginak sortzea:

"Kokapenaren gaineko landarediak ez du eragin nabarmenik izango, dorre berria egungo zentroak aurrez aldatutako kokapen baten gainean instalatuko baita". Alde horretatik, azpimarratu behar da landarediaren gaineko inpaktua oso txikia dela, hesitutako eremu bera erabiltzen baita dorre berria jartzeko.

Faunarengan eraginak sortzea:

"Dorrea instalatzeko lanek inguruan bizi diren espezieen habitata aldi baterako alda dezakete lan horiek egiten diren bitartean, sor daitezkeen zarata dela eta". Hori iragankorra izango da, eta instalazio lana osatzen denean amaituko da. Kalteak jasan ditzaketen hegaztientzako aldi kritikoak hartuko dira kontuan. Azpimarratzekoa da, beraz, obrak aldi ez-kritikoetatik kanpo planteatzen direla eta, ondorioz, eragin txikia izango dutela hegaztientzat; hori guztia, HBBE batean gaudela kontuan hartuta.

Dorrea aurrekoa baino 11 m altuagoa denez, hegazti faunarengan izan dezakeen inpaktua handitu egingo da. Hala ere, ordezkapen horri esker, aterpe eskaera berriak bete ahal izango dira, inguruan antena gehigarriak instalatzea saihestuz. Eremu berean dorre bat jartzeak, nahiz eta altuagoa izan, inpaktuak saihestuko ditu beste eremu batzuetan, non telefonia estaldura hobetzeko dorre berriak jarri beharra izan baitzen.

Paisaian eraginak sortzea:

“Dorre berriak aurrekoa baino intrusio bisual handiagoa ekarriko du, 11 m altuagoa baita, baina aterpe eskaera berriak betetzea ahalbidetuko du, inguruan antena gehigarriak instalatzea saihestuz”.

Ondorio gisa, Sobrongo 1. poligonoko 938 lurzatian komunikazio dorrea ordeztzeko proiektua gauzatzeak eragindako ingurumen inpaktuak neurrizkoak eta bateragarriak direla jotzen da, ez baita aurreikusten egungo egoerarekiko funtsezko aldaketak ekarriko dituen jarduketarik, gaur egun komunikazio dorre bat baitago. Aurrekoa gorabehera, beharrezkotzat jotzen da sustatzaileak kontuan har ditzan eta, horrez gain, bete daitezela hurrengo apartatuan ezarritakoak.

5. Ingurumeneko babes eta zuzenketa neurriak

Sobrongo 1. poligonoko 938 lurzatian komunikazio dorrea ordeztzeko proiektuari buruz dagoen dokumentazioa eta erreferentziako ingurumen kartografia aztertu ondoren, ondorioztatzen da proiektu horrek ez duela ekarriko ingurumen efektu handiko jarduketarik egungo egoerarekin alderatuta, gaur egun komunikazio dorre bat baitago. Hala ere, hauek dira Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasuneko Zerbitzuaren ustez kontuan hartu behar diren ingurumeneko babes eta zuzenketa alderdi eta neurri nagusiak:

1. Obra aurreko zuzenketa egiteko eta obren ingurumen jarraipen egokia egiteko data bat ezartze aldera, gutxienez astebete lehenago jakinarazi behar zaio haien hasiera AFAko Natura Ondarearen Zerbitzuari, Valderejo-Sobron-Arzena mendilerroa (ES2110024) HBBe ko Natura 2000 Sareko Gunearen organo kudeatzailea den aldetik, bai eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari ere, ingurumen inpaktuaren ebaluazioaren ingurumen organoa baita.

2. Maiatzaren 22ko 229/2015 Foru Aginduaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Planaren zehaztapenak betez, proiektatutako lanak sai zuriaren eta sai arrearen hazkuntzarako ugalketan aldi kritikoetatik eta sentikortasun handieneko aldietatik kanpo egingo dira (urtarrilaren 1etik irailaren 1era bitartean).

3. Lanak hasi aurretik, obra eremua balizatuko da, saihesteko pertsonak ibiltzea, makinak eta materiala pilotzea telekomunikazio zentroak hartzen duen eremutik kanpo. Zehazki, pistako behealdetik abisatuko da Ferrata bidea – 1. tarterako sarbidea aldi baterako itxiko dela.

4. Dorre berria eta birjarri beharreko perimetro itxitura ahalik eta paisaia inpakturik txikiarekin egin beharko dira; beraz, haien kokapena kontuan hartuta, berde ilun matez margotu edo estaliko dira, ingurune naturalean errazago ezkututzen baitira horrela.

5. Valderejo-Sobron-Arzena mendilerroa (ES2110024) HBBearen barruan beharrezkoak diren materialak garraiatzeko makinak eta ibilgailuak sartzeko ezinbesteko gutxienera mugatzen da, eta, betiere, etxolarainoko sarbidea lehendik dagoen bidera mugatuko da.

6. Berriaz debekatzen da jarduketak egitean sor litezkeen hondakinak eta produktuak isurtzea. Halakoak baimendutako hondakindegira eraman beharko dira, eta hala behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile baimendu batek eraman beharko ditu. Obrak egin bitartean, ontzi estankokoak, biltegi iragazgaitzak edo bestelako sistemak erabiliko dira lubrifikatzaileak edo erregaia biltegi-ratu beharra badago lanak egingo diren eremuan. Debekaturik dago erabilitakoak isurtzea, baimendutako kudeatzaile bati eman behar zaizkio eta, hondakinen eta lurzoru kutsatuen uztailaren 28ko 22/2011 Legeak eta beste araudi espezikoko batzuek xedatutakoari jarraituz.

7. Lanak amaitutakoan, jarduketa eremua garbitzeko kanpaina zorrotza egingo da, eremuan eta haren sarbideetan dauden hondakinak jasota, hondakindegira baimendu batera eramateko, eta hondakinen kudeatzaile baimendun batek jasota, hala behar izanez gero.

Horrenbestez, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Sobrongo 1. poligonoko 938 lurzatian komunikazio dorrea ordezteko proiektuaren ingurumen inpaktuaren txostena ematea.

Bigarrena. Ingurumen ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legea betez, ingurumen inpaktuaren txostenak ingurumen erabaki loteslearen ondorioak izango ditu proiektua gauzatzeko neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Ingurumen inpaktuaren txosten hau ALHAOn argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilaren 14a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA